

KARNABALAK HERNANIN



Jendea itsuraldatuta ibiltzen da inauterietan. Baita Hernanin ere...

Ostiral argalarekin hasiko dira Hernaniko inauteriak

■ 'Los Cuatros de Etxeberri' taldea omenduko dute aurten ■ Lau konpartsa irtengo dira igandean.

TOLOSAN baino beranduxeago, baina, laster dira Hernanin ere inauteriak. Datorren ostiralean 15:30etan emango zaie hasiera ofiziala, Gudariaren plazan, *Los Cuatros de*

Etxeberri taldeari omenaldia egin eta gero.

Umeei begirako festa
Lurdes Etxeberria kultura zinegotziak azaldu digunez

"Hernaniar guztiei zuzendutako festa izan arren umeei begirako egitaraua egin da gehien bat". Azken urteetan umek izan dira parte hartzaile nagusi festa hauetan; hori da egitaraua beraiei zuzendu izanaren arrazoia.

Zezen txikiak
Zezenak Urumea ikastolako plazan izango dira. Zezen txikiak ekarriko dituzte, umek ibiltzeko modukoak.

Ikutu batzuk eman zaizkion beste ekitaldi bat Tilo-setako berbena da. Berbena ez, baina, mozorro festa egingo dute aurten. Gaztetxoak izango dira protagonista, be-rak aritu baitira guztia antolatzen.

Lau konpartsa, igandean
Elizatzxo, Inmaculada, Langile eta Ttarlako konpartsak aterako dira aurten. Hoziez gain, *Los Cuatros de Etxeberri* omenduek ere badute zerbait egiteko asmoa.

Aurten faltako dena *Beti Alperrak* taldea izango da, Hernanin inauterietako konpartsa sortu zuena. 1989tik urtero atera izan dira, baina, aurten uztea erabaki dute. □

Urteko batzarra bihar Jubilatu Etxean

JUBILATU Etxeak batzarra egingo du bihar. Junta berria onartu behar dute biharko batzarrean. Bi konbokatoria: arratsaldeko 16:00etan eta 16:30etan. □

■ PALA

Hernaniko VII. Pala txapelketa martxan

KIROL Patronatuak VII. Pala txapelketa antolatu du, kiroldegiko bazkideentzat eta hernaniarrentzat. Parte hartu nahi duenak, gaurtik otsailaren 17ra bitartean eman behar du izena kiroldegian. Txapelketa gomazko pelotarekin jokatu da. Otsailaren 24ean hasiko da eta maiatzak 12an bukatu. Arauak:

1. Bikoteak ordezkotzat behar du.
2. Ez dago partidu aldaketarik.
3. Bikote bakoitzak gutxienez egun batez epaile izan behar du.
4. 12 euroko seinalea utzi behar da. Partidu guztiak jokatu ezker bueltatu egingo da.
5. Gehienez 16 bikote.
6. Partidak igande goizetan izango dira 30 tantotara. □

Gaur, Santa Ageda bezpera, kantura aterako dira taldeak

HAINBAT talde ibiliko da gaur herrian barrena santa-eskean. Goizean Langile eta Ereñotzuko gazteenak ibiliko dira. Arratsaldean helduagoen txanda, eta hemen ere, hainbat talde: Ohitura zaharrak abesbatza udaletzeko arkupeetan ziztu da 18:30etan. Herritar guztiei dei egiten diete agertzeko. Kantuz abesbatza eta Ur Miako taldea ere aterako dira. □

EGITARAUA	
Otsailak 8, ostirala	Otsailak 10, igandea
15:30 Hasiera ofiziala eta omenaldia	11:30 Txaranga
17:00 Trilakua Plaza Berrin	12:00 Konpartsak
Otsailak 9, larunbata	18:00 Kale Antzerkia
8:30 Zezenak Urumean	19:30 Trilakua eta dultzaina
10:00 Axeri danza	Otsailak 11, astelehena
11:00 Txaranga	9:00 Dinaa
12:00 Erraldoi eta buru haundik	10:00 Axeri danza
16:30 Disiraz danza Plaza Berrin	12:00 Pasa Kalleak
17:30 Baile Sandiasterrin	16:00 Erraldoi eta buru haundik
19:30 Disiraz festa Tilo-setan	17:00 Berbena umecentzat Bilerin
0:00 Txaranga	Otsailak 12, asteartea
	18:30 Enfierno de la sardina

Maite Iribarren
Kinesologa

TRATAMENDU:

- ESTRUKTURALAK (GIHARRAK, ORNOAK, ARTIKULAZIOAK...)
- PSIKO-EMOZIONALAK
- KIMIKO-NUTRIZIONALAK

Juan de Urbietako 7 - 6.C
Tel. 943 553 948 - HERNANI

KINESIOLOGIA

ZER DA? Edozein lesio, oinaze edo desorekaren jatorria aurkitu eta tratatzeko ahalbidetzen duen sistema da.

NOLA? Test-muskular sentzioen bidez, pertsonaren gorputza eta barne-arazoak komunikatzen ditu.

Pertsona, bakarra eta diferentea den neurrian, tratamenduak ere bakoitzaren behar eta nahietara egokitzen dira.

Hernaniko Kronika

Zure publizitatea hemen
943 330 899

ETXE ONENAK, S.A.

GARAJE ITXIAK 'OBLATOS'ETAN SALGAI

Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37

HERNANI BIDAIAK

Urbietako 6 - HERNANI
☎: 943 33 00 49 - 33 01 74
e-mail: hernanib@telefonos.es

Hernanitik munduko leku guztietara iristen lagunduko dizugu.

DORRONSORO

OKINDEGIA

Bertan egindako kalitatezko ogia

J.DORRONSORO OKINDEGIA, S.L
Lizeaga, 7 ☎ 943 33 36 18 -20120 HERNANI

Allianz

ASEGURUAK

Agustin Ezponda
AGENTZIA

Tel.: 943 557 326
656 735 109

URUMEA IKASTOLA

Iñude eta Artzaiek kaleak bete zituzten

■ 120 lagun bildu ziren konpartsan ■ Konpartsaeren atzetik ere jende asko ibili zen.

URTERO bezala Iñude eta Artzaiek konpartsa kaleratu zuten Urumea ikastola. Eguerdiko 12:00ak puntu puntuan zirela atera zen konpartsa ikastolatik. Kaleetan zehar buelta bat eman ondoren, Latsunbeiko kirol gunera iritxi zen eta han egin zuten ekitaldi nagusia.

Umeen txerto eta erregistroa
Egun hau aprobetxatu dute Iñudeek euren haurrak txertatu eta dotore asko jantzita dauden agintariei aurkezteko. Hauek behar den bezala erregistratu zituzten haur guztiak. □



Haurrak besoetan zituztela ibili ziren Inudeak

XALAPARTA ELKARTEKO BATZARRA



Bazkiderik gehienak elkartearen bildu ziren, urteroko batzar orokorrean.

Bi bazkide berri onartu zituen batzarrak

ATZO egin zuten Xalaparta elkartearen batzarra. 130 bazkideetatik gehienak han ziren: 96. Urteko balantzea onartu zen,

zuzenketa bat egin eta gero. Titularidade aldaketa bat ere onartu zuen batzarrak, Joakin Arokaren ordez alaba sartu zen,

Eva M^a Aroka; eta libre zegoen posturako Aitor Salillas aukeratu zuten. Urteko kuota berria ere zehaztu zuten: 90 euro.

■ ERRUBIA

Hernanik partidu garrantzitsua irabazi zion atzo Bilbori (34-48)

BOSGARREN postua zihurtatzera joan ziren hernaniarrak Bilbora eta ondo bete zuten bere helburua. Bilboko taldea, Hernaniren atzetik sailkatuta zegoen, eta hala jarraitu beharko du. □

■ ESKUBALOIA

24-20 menperatu zuen Hernanik Elgoibar

PARTIDU ona larunbatean kiroldegian. Lehen postuan berdinduta zeuden bi talde neurtu ziren: Hernani eta Elgoibar. Borrokatuta baina, garaile etxeok 24-20. Eta gero eta liderrago! □

KIROLAK - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA	TALDEAK	PELOTA	PELOTARIAK	PELOTA	PELOTARIAK
Gorengo maila	Pasaia 2 - Hernani 0		Eusk.H. Txap		Gip.Trink. Txap
Emakum. liga	Hernani 7 - Alde Zaharra 1	Esk.binaka kad	Arrieta 11 / Gure Txoko 22	Esk.bin.kad	X.Erdozio 30 - E.Ramos 27
1. Erregionala	Azkuene 1 - Hernani 3	Esk.binaka Jubl.	Alvarez-San Sebast.22 / Altsasu 11	Esk.bin.kad	Ramuntxo 30 - J.Apaolaza 24
Gazteak. L. Naz	Hernani-Reala	Paleta goma jub.	Burutaran-Valero 14 / Auritzberri 30		
Gazteak Ohor.	Hernani 0 - Bergara 6	Paleta goma jub.	Hoz-Lujanbio 23 / Auritzberri 30		
Kadet. Ohor.	Hondarrabia 2 - Hernani 3	Paleta goma	Manzidor-Martinez 30 / Intxaur. 9		
Kadet. 2.maila	Hernani 3 - Aretxabaleta 0		Udaberri Txap		
Haurrak Ohor.	Hernani 0 - Aitzgorri 3	Paleta larruz	Lizeaga-Lujanbio 26 / Altxatarrak 35		
ESKUBALOIA	TALDEAK	Esk.binaka kad	Zurriola/Apaolaza 22 - Zurutuza 16		
Esk.adiko L.	Hernani 24 - Elgoibar 20	Esk.binaka kad.	Txapagain 20 / Ezeiza-Gorrotzat. 22		
ERRUGBIA	TALDEAK	Pala motza	Gazteleku 40 / Ubarret.-Galartza 26		
Senior A.1.mail	Bilbo 34 - Hernani 48	Eskuz binaka inf.	Añorga 8 / Zabala-Aizpitarte 18		
Infant. G. Liga	Zarautz 15 - Hernani 10	Eskuz binaka inf.	Ataun 12 / Ezeiza-Grajal 18		
BOLEBOLA	TALDEAK	Eskuz binaka inf.	Andazpe 18 / Barrantes-Arregi 18		
1. Autonom.	Hernani 3 - UPV-Bizkaia 2	WATERPOLOA	TALDEAK		
Kadeteak	Hernani-Leizaran	Gipuzkoako liga	Hernani B-Urbat		



■ HITZ BITAN

✓ ZUHAITZ EGUNA

Aparrairen izango da otsailaren 16 eta 17an. 'JOXE Legarreta' Zuhaitz Eguna Aparrairen egingo da aurten. Aparrairen lekuri politenetako bat da, bere parke eta guzti. Ereñotzitik aurrera jo eta Ugaldetxon ezkerretara igota da. Aurten haritz amerikanoa edo gorria eta urkia sartuko dituzte.

Gaztetxoak eta helduak parte hartzen dute, bakoitzak egun banatan. Otsailaren 16an, larunbata, gaztetxoak joango dira Aparrairera, goiz pasa. Otsailaren 17an, berriz, helduen txanda. Plazatik atera eta oinez joango dira Aparraireraino. Eta gero, zuhaitz aldatzera! Izena emateko Mendiriz Mendi elkartearen.

✓ GREBA SELAK ETA SAVERA SVS-N

Langile komitearekin biltzeko eskatu dio CCOO enpresa zuzendaritzari. CCOOn afiliatutako Selak-eko langileak orain arteko postura aldatzeko eskatu dio enpresa zuzendaritzari, prentsa ohar baten bidez. Langileek bilera bat eskatzen diote zuzendaritzari, eta lehenbailehen, oraingo egoera desblokeatzeko. Horrez gain, langile guztieri dei egiten diete eguneroko mobilizazioetara agertu daitezen.

✓ MOLOTOFF IRRATIA

Mariano Ferrer-i elkarrizketak irekiko du irratia astea, gaur zortzi. MOLOTOFF irratia 15 urte bete ditu aurten. Urteurrena ospatzeko ekitaldiak antolatu dituzte datorren asterako. Astelehenean elkarrizketa egingo diote Mariano Ferrer kazetariari, 16:00etan Molotoff irratiaren. Asteartean hitzaldia emango du beste kazetari batek, Jose Mari Pastorrek. Gaia: *Komunikabideen manipulazioa Nazioartean*. Asteazkenean beste hitzaldi bat izango da: Euskal komunikazio esparruaren garrantzia. Edorta Arana eta Josu Amezaga ikasleek emango dute. Ostegunean Hernaniko komunikabideei buruz ariko dira Biterin Ttipi Ttapa, Molotoff, eta Hernaniko Kronikakoak. Ostegunean *El Show de Truman* pelikula botako dute. Eta ostiralean, bukatzeko, afaria eta festa izango dira, Arizmendin.

✓ ELUR-TXORI ELKARTEA

Museko semifinalak, asteazken eta ostegunean. Elur Txoriko mus txapelketa iritsi da finalurrekoetara. Asteazkenean buruz burukoak jokatu dira eta ostegunean parejakoak. Partidak arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara izango dira. Hilaren 8rako (osteguna) jokatu beharko dute.

Asteazkena, otsailak 6	
Aierdi	Txabon
Esna	Bilbao
Osteguna, otsailak 7	
Gaztaniaga-Otegi	Apaolaza-Peli
Martinez-Sanz	Ormazabal-Bilbao

✓ ODOL EMAILEAK

Bihar da odola emateko eguna. Anbulatorioan arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☎ Taxiak:
943 550093
☎ Udaltzaingoa:
943 333288
☎ DYA:
943 464622
☎ Anbulatorioa:
943 557750
☎ Jokalari anonimoak
943 331103

☎ FARMAZIAK

☎ Egunez: Sagastiberri Urbieta 7
☎ 943 552941
☎ Gaez: Sagastiberri Urbieta 7
☎ 943 552941
☎ **ASTEARTEA**
☎ Egunez: Gomez Nagusia 15
☎ 943 554892

☎ Gaez: Gomez Nagusia 15
☎ 943 554892

☎ ASTEAZKENA

☎ Egunez: Bulnes Etxeberri - La Florida
☎ 943 557738
☎ Gaez: Oa Usurbil - 1 polig.
☎ 943 376076

Argitalpen hau, honako entitate hauen laguntzari esker argitaratzen da:



HERNANIKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak diruz lagundua

IRAGARKI MERKEAK

Klase partikularrak ematen ditut. DBH arte asigantura guztiak. Interesatuak deitu: **636170817** Itzalai.

Etxeko lanak egin edo/eta umeak eta edadetuak zainduko nituzke. Harremanetan jartzeko: **652-743666**